



taxi kitto!



**IPURTERRE 2020
idazle gazteen
harrobi**



Euskara Elkartea

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

...eta kitto!

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



ibaizabal



denonartean



Gipuzkoako Foru Aldundia





XXVI. IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

Esan beharrik ez dago ezohiko ikasturtea izan zela aurrekoa. Egoerak hala behartuta hainbat ekimen, ekitaldi eta egitasmo bertan behera utzi behar izan genituen, halaberrez. Baina, zorionez, beste batzuk egin ahal izan genituen. Horietako bat izan da Ipurterre lehiaketa. Etxealdia hasi aurretik zuok, ikasleok, lanak idatzita eta entregatuta zenituzten, eta lan hori ezin zen alperrikakoa izan. Hori dela-eta, ... eta kitto!-k lehiaketarekin aurrera egitea erabaki zuen eta epaimahaiak egindako ahalegin handiari esker berehala izan genuen ebazpena. Ondorengo orrietan dituzue lan irabazleak. Zabaldu orriak eta gozatu!



LH 1-2

ENEKO CRESPO (La Salle Isasi ikastetxea)

"BASERRIA ETA TXORIMALOA"



Bazen behin baserri bat eta txorimalo bat. Txoriek apurtu egiten zuten txorimaloa.

Azkenean porruetara jausi zen eta geroago txorimaloa apurtu zen. Baserritarrak ikusi zuenean porruetan apurtuta... haserretu egin zen eta esan zuen:

- Txoriak berriro ere!!!!



LH 3-4

EIDER OYARZABAL (La Salle ikastetxea)

“OSTADAR JATETXEA”

Bazen behin jatetxe bat bertan sei anai-arreba eta gurasoak bizi zirenak. Ane, Malen, Leire, Aner, Jon eta Ander ziren anai-arrebak eta gurasoak Paule eta Danel deitzen ziren.

Oso jatetxe ospetsua zen, ateratzen zuten janaria kolore askotakoa zelako, horregatik deitzen zen Ostadar jatetxea.

Jatetxearen goian beraien etxea zegoen eta bertan bizi ziren. Etxean misterio bat zeukaten. Garbaigaluan arropa sartzen zuten bakoitzean, arropa desagertu egiten zen eta ez zekiten zergaitik.

Familia oso kezkatuak zegoen, zeren ez zekiten zer pasatzen zen arroparekin. Egunak joan, egunak etorri, berdin jarraitzen zuten.

Egun batean, familia sukaldeko mahaian jarri zen arazoari buruz hitz egiteko. Neskak esaten zuten iturginari deitzeko eta mutilek beraiek konponduko zutela.



Azkenean gurasoak erabaki zuten zer egin eta erabakia familia guztiak garbigailua konpontzea izan zen.

Hurrengo eguna larunbata zenez, eta eskolarik ez zegoenez, oso goiz esnatu ziren garbigailua konpontzeko.

Eztabaidaka hasi ziren; batzuk esaten zuten dena soltatzeko, beste batzuk barruan sartzeko arropa, eta orduan gurasoek erabaki zuten denak barrura sartzea.

Garbigailu barruan ez zuten ezur aurkitzen, pentsatu zuten garbigailua martxan jartzea. Bat-batean ate bat ireki zen eta pasabide luze-luze bat aurkitu zuten, beraien erropez egina.

Arropa jasotzen hasi ziren eta bat-batean jatetxeko sutondoan agertu ziren. Horregatik ateratzen zen janaria kolore askorekin, arropak tintatu egiten zuelako janaria.





LH 5-6

NAHIA JAUREGUI (J.A. Mogel Ikastola)

“PORRU SALDA”

Denok dauzkagu, baita nik ere. Batzuk gogor eusten dituzte, eta besteei hain gogor ez eusteagatik, ihes egiten dizkiete, bihurriak baitira. Batzuk zailak, beste batzuk ez hain zailak, eta badaude ezinezkoak ere, baina azken finean denok borrokatu behar dugu pixka bat hauek lortzeko.

Bai, agian jakingo duzue zertaz ari naizen, baina, ez badakizue... ametsi buruz ari naiz hizketan.

Nire ametsa laino anderearekin hitz egitea da, nahiz eta ezinezkoa den (nire arrastoa amaitzeko zorian dagoelako), jaiotzetik hiltzeraino gertatutako pare bat gertakizun kontatuko dizkizuet, egoera ulertzeko.

Baserrri batean jaio nintzen, hiri ez oso handi baten inguruko mendietan, nire anai-arrebak eta lagunak ondoan nituela. Aipatu beharrekoa da, egun euritsu bat izan zela eta horrek justifikatzen duela, nire bizitzako egunen bat hezea izan dela,

logikoa denez (bestela ezingo nintzateke bizi).

Egunak joan egunak etorri, nik aldaketak sumatu ditut eguraldiari dagokionez, eta ez dakit baina agian, nire baserriko jabeei hainbeste entzuten zaien hitz



multzoarekin zerikusiren bat izango duela pentsatzen dut. Bart ortuan lanean zebiltzan, gai honi buruz eztabaidan berriz ere, eta hau da elkarrizketatik gogoratzen dudana bakarra:



- Aizu, Ambrosia, aldaketa klimatikoa dela eta... Zuk ez al duzu uste gure barazkiak sufritzen dabilzala, hainbeste egun eguzkitsu egiteagatik?

- Zergatik diozu hori, Pantxika? Nahiz eta jada euri gutxiago egin negua izanik, guk egunero ureztatzen ditugu produktuak, urtegiko ur freskoarekin.

Harrigarria da pentsatzea, gure inguruan izaki asko ditugula gai hau axola ez zaienak, naturala den zerbait gizakiak fabrikatutako substantzia artifizial batekin ordezkatzeko dutenak.

Duela hilabete batzuk, abisu-ohar bat helarazi ziguten udaletxetik, arazo honen beste kausetako bat izan daitekeena; hau zioen eskutitzak:

“Handia baserriko bizilagun agurgarria. Urtarrilaren 30-etik otsailaren 17-rarte, zuhaitz mozketa lanak egingo ditugu zuen baserri inguruan.

Guztira, 400 zuhaitz inguru edo gehiago botatzeko asmoa dugu. espero dugu, zuen pribatutasuna ez inbaditzea eta kalte handirik ez eragitea zuen egunerokotasunean. Besterik gabe, herriko alkatea”.



DBH 1-2

ENARA GABIOLA (Eibar BHI)

“2100. URTEAN EIBARREN EUSKARAZ BIZIKO GARA, BALDIN ETA....”

Kaixo aitxitxa:

Badakit gutun hau ez duzula inoiz irakurriko, eta ez nauzula ez ikusten ez entzuten. Baina hau garrantzitsua da, eta idatzi egin behar dut, norbaiti kontatu.

2100. urtean Eibarren euskaraz biziko gara baldin eta orain, galdu dugun euskara guztia berreskuratazen badugu. Bai, euskara galtzen ari da, eta azkenean, euskara zuhaitz bat bezalakoa da.

Enbor sendoa du berez, eta urte asko daramatza bizirik. Adarreko hostoak gu gara, euskaldunak. Dirudienez, udazkenean gaude, ia neguan, izan ere, hostoak marroixkak daude, jausteko zorian. Batzuk jada lurrean daude, enborretik kanpo, euskaratik kanpo. Hori ari da gertatzen... Gero eta pertsona gehiago daude euskara uzten, zuhaitzetik erortzen.

Baina badakit ez dela lehenengo aldia. Zu gaztea zinenean ere zuhaitza hiltzen hasi zen, orain bezala. Francok ez zuen erabiltzen uzten, baina zuek ausartak izan zineten eta ezkutuan berreskuratu zenuten, zuen bizitza arriskuan jarritz. Orain, berriz, jendea ez zaio inporta. Ez zaie axola gure herriaren hizkuntza galtzea, desagertzea. Niri pena ematen dit. Ni euskaraz jaio nintzen, euskararekin hazi nintzen eta euskararekin bizi naiz.



Gainera euskara munduko hizkuntza zaharrenetarikoa da. Ez daki inork nondik datorren, baina dakiguna da ezin dugula galdu, ze, euskararik gabe ez gara euskaldunak. Laburbilduz: gure zuhaitza hiltzen ari da; euskara hiltzen ari da, barrutik usteltzen ari da, eta, hoei gutxi balitz, jendeak euskararen zuhaitza moztu nahi du. Baina guk ez diegu lagako, indartsuak izango gara eta euskara babestuko dugu.

Hau izan da dena aitxitxa. Orain badakizu zer gertatzen ari den. Zuk ikustea nahiko nuke, nire ondoan egotea orain, gutun hau idazten dudan bitartean, izan ere, badakit zuk gogor borrokatuko zenuela.

Agur bero bat



DBH 3-4

MAIDER ERRASTI (Eibar BHI)

“2100. URTEAN EIBARREN EUSKARAZ BIZIKO GARA, BALDIN ETA...”

Euskara hizkuntza bat baino gehiago da, komunikaziorako erabiltzen dugun arren sentimendu bat da niretzat, Euskal Herriko kulturaren buru da edo “ez al dakigu euskara dela euskaldun egiten gaituena?”

Txikitatik dakigu euskara askok, bai etxean ikasita baita eskolan ere. Eskoletan euskara da lehen hizkuntza, eta horrek asko lagundu izan dio euskarari beti. Umeak eta umeak ohitu dira Eibarren euskaraz hitz egiten hezkuntza hizkuntza horretan jaso dutelako.

Horrez gain, denok ez dute etxean euskara praktikatzeko aukera izan eta eskola izan da bide batez horren konponbidea. Baina eskoletatik irtetzean, erabiltzen ez badugu, ez du ezertarako balio ikasitako guztiak eta egindako lan guztiak.

Euskara jende gutxi hitz egiten du mundu guztian eta horregatik galzorian dago. Askotan errua besteei botatzeko ohitura dugu, galtzen badago ere gu errudunak ez garela pentsatu nahi dugu, baina hori ez da horrela. Eibar famatua izan da industrian eta etorkin asko etorri ziren orain dela urte batzuk. Hizkuntza bat zaintzeko eta mantentzeko modua ez da besteei leporatzea.

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak ikasten ez duelako, dakienak erabiltzen ez duelako baizik”.

Eibarren euskarak luzaroan jarraitu dezan bidea transmisioan datza.

Ingurukoekin mintzatu behar gara euskaraz, familiarekin, lagunekin, dendetan, kalean...

Guri heldu zaigun bezala transmititu behar dugu, belaunaldiz-belaunaldi.

Baina beste modu bat ere bat badago. Ez gara konturatzen urteak eta urteak daramagula euskaldunok gure artean euskararen garrantzia transmititzen, agian ez gara inoiz konturatu baina tokiko literaturak transmititzen diguna ezin dugu beste modu batez parekatu. Lehen aipatutako hainbat esaldi beharbada lehenago entzungo zenituzten.

Modu honetan euskararen gauza aipagarrienak gogoratzen ditugu. Lan hau zaila da eta, ezinbestekoa da gure eskuetan dagoela jakitea. Hau ez da egun batetik besterako gauza. “Atsedetik hartu gabe; lana eginez goaz aurrera, kate horretan denok batera, gogorki loturik gaude...”

Baina ez badugu bataila hau irabazten, hizkuntzak ez du oso argi izango bere etorkizuna. “Geure arima hiltzen uzteko bezain odol galduak ez gara?”

Ondo egongo litzateke denok hausnarketa bat egitea; eta konturatzea irabaziko ez genukeenaz, baina batez ere galduko genukeen guztiaz. Baina gogoratu gure eskuetan dagoela euskararen etorkizuna Eibarren.







TOR MAGOAK ERE HARTU DU PARTE IPURTERREKO SARI BANAKETA EKITALDIAN

Orrri hauetan dituzuen argazkiak Unibertsitate Laboralean ateratakoak izan behar zuten, baina, zoritxarrez, aurten ezin izan da horrela izan. Egoera berezia bizi dugu eta horrek eragina izan du bizitzako arlo askotan; Ipurterre lehiaketan ere bai. Egia da lan guztiak irakurtzeko eta ebazpena lehenbailehen izateko lan handia egin duela epaimahaiak, eta horri esker jaso dute ondo merezitako saria aurtengo irabazleek. Baina saria jasotzeko modua ezberdina izan da; Unibertsitate Laboralean jaso beharrean ...eta kितto! Euskara Elkartearen egoitzan jaso zituzten euren sariak irabazleek, baina banan-banan.

Sariak banatzearekin batera ekitaldia girotzeko urtero etortzen dira Unibertsitate magoak, pailazoak... Tor magoa zen etortzekoa aurten; aurrez aurre ezin izan zen etorri baina magia-ikuskizun zoragarria eskaini zigun, online. Ikuskizuna argazki-bidez adieraztea ez da erraza, baina orriotan dituzue baten batzuk; bideoa osorik ikusi nahi izanez gero, hemen lotura: <https://youtube.be/RiekPRPXLOQ>.

IPURTERRE 2020



Eskerrik asko Tor,
eta hurrengora arte!!!





Txindurriek bi urdail dituzte: bata euren elikagaiak gordetzeko, eta, bestea, beste txindurri batzuekin partekatuko dituztenak gordetzeko.



Ametsek 3-4 minutu irauten dute. Esmatzear gaudenean amesten dugu eta horregatik iruditzen zaigu gau osoan egon zarela amets hori amesten.



Elefanteek ezin dute salto egin eta elefante gehienek bale urdinaren mingaina baino gutxiago pisatzen dute.



Galapagoetako dordokek egunean 16 ordu egin dezakete lo eta urtebete iraun dezakete ezer jan gabe eta edan gabe.



Beleek ez dute aurpegi bat sekula ahazten.



Hartz inurrijaleek, egunean, 35.000 txindurri jaten dituzte.



Hartz zuriaren azala beltza da eta ilajea ez da zuria, zeharrargia baizik.



Txokolateari esker gure gorputzeko endorfina-kopurua igo egiten da eta horrekin batera zoriontasun-sentsazioa areagotu egiten zaigu.



Niagarako Ur-jauzietatik erori eta gero bizirik atera zen lehenengo gizona laranja-oskol bat zapaldu eta erori ondoren hil zen.



Gizakiok arranoen moduko begiak izango bagenitu, txindurri bat ikusiko genuke 10 solairuko eraiki baten goiko aldetik.



Gosea baduzu, ezingo duzu lorik egin. Logurarik ez baduzu, gosea sartuko dizu. Maila neuronalean elkarrekin konektatutako funtzioak dira.

Denborapasak



ASMATUKO DUZU ZEIN DEN PLANETA BAKOITZA?

1. Kolore urdina duen planeta da. Plutonena eta Uranoren artean dago.

LURRA

NEPTUNO

PLUTON

2. Planeta hotzena da, eguzkitik urrutien dagoena dagoelako.

PLUTON

JUPITER

URANO

3. Planeta gorria deitzen zaio askotan.

ARTIZARRA

MARTE

MERKURIO

4. Planeta hau ere kolore urdinekoa da, eta Saturnoren eta Neptunoren artean dago.

MARTE

LURRA

URANO

5. Planeta hau Eguzkitik gertuen dagoen planeta da.

PLUTON

JUPITER

MERKURIO

6. Eratzun ikusgarria daukan planeta da. Uranoren eta Jupiterren artean dago.

SATURNO

LURRA

MARTE

7. Eguzkitik kontaktzen hasita, bigarren planeta da. Golzez eta arratsaldean ikusten dugun planeta da eguzkitik gertu.

JUPITER

ARTIZARRA

PLUTON

8. Eguzkitik kontaktzen hasita, hirugarren planeta da, eta bizitza izateko baldintza aproposenak ditu.

MARTE

LURRA

URANO

9. Eguzki- sisteman dagoen planeta handiena da.


JUPITER

URANO

MERKURIO

- 1. GALDERA: NEPTUNO
- 2. GALDERA: PLUTON
- 3. GALDERA: MARTE
- 4. GALDERA: URANO
- 5. GALDERA: MERKURIO
- 6. GALDERA: SATURNO
- 7. GALDERA: ARTIZARRA (VENUS)
- 8. GALDERA: LURRA
- 9. GALDERA: JUPITER

Erantzunak



LABIRINTOA



©www.PrimaBata.com

GURUTZEGRAMA

ESKOLAKO GAUZAK

X	W	N	I	T	H	T	E	A	E	T	A	U	Q	E
T	R	P	Z	H	Y	I	R	I	X	R	Z	E	M	U
Z	H	D	B	B	K	Z	R	W	K	Q	Q	W	H	
Q	Y	H	Q	Q	Z	A	O	A	Q	L	R	P	B	W
M	O	G	M	R	X	D	T	A	E	T	R	G	O	A
F	A	M	V	R	F	Z	U	A	I	Z	O	N	V	R
A	Y	R	E	A	A	M	L	N	K	F	Z	M	K	B
I	C	W	G	G	W	O	A	I	J	V	K	W	Y	E
A	G	L	T	O	I	A	G	U	A	O	I	H	E	L
H	R	A	U	M	A	I	A	P	R	M	L	M	T	A
A	F	V	O	A	V	K	I	I	B	C	O	N	K	W
M	A	U	R	U	B	I	L	F	Y	Z	A	F	T	C
B	A	L	D	G	T	A	U	Y	B	T	R	S	A	S
P	Z	D	K	Q	F	C	A	C	Q	Y	X	F	R	O
N	A	I	K	L	U	A	K	S	G	T	W	W	X	D



ARBELA
 ARKATZA
 ATEA
 AULKIA
 BORRAGOMA
 ERROTULAGAILUAK
 IPUINA
 LEHIOA
 LIBURUA
 MAHAIA
 MARGOAK
 TIZA
 ZORROZKILOA

euskal.info



Denborapasak




- 3 jaune
- 4 noir
- 5 marron
- 6 marron
- 7 bleu clair
- 8 vert
- 9 blanc
- 10 rouge




5 desberdintasunak





Labirintoak





zu margolari